



658/2023, de 24 de octubre

ERABAKIA

Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saila

Idazkaritza Orokorreko Zerbitzua
Espediente zk.: 15/2023

ACUERDO

Departamento de Igualdad, Euskera y
Gobernanza

Servicio de Secretaría General
Nº expte: 15/2023

Arabako Foru Aldundiko diputatuen bateragarritasunari buruzko adierazpena

Foru ordenamendu juridikoak inpartzialtasunez eta objektibotasunez jokatzeko eskatzen die kudeatzaile publikoei karguan diharduten administrazioan gobernu eta zuzendaritza funtzioak betetzean, helburua baita beste interes edo jarduera batzuek ez dezatela ez funtzio horiek betetzea oztopatu, ez baldintzatu, eta ondorioz, kudeatzaileen objektibotasuna, independentzia eta inpartzialtasuna arriskuan jarri. Eskatzen die, halaber, gardentasunez, legezotasunez eta interes publiko eta pribatuen arteko gatazkarik sortu gabe jarduteko. Kargu publikodunen inpartzialtasuna, independentzia eta eginbeharrak zorrotz betetzea nahikoa arrazoi da bateragarritasuna ukatzeko, baldin eta haientzako arriskurik txikiena ere egoten bada.

Indarrean dagoen Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauak sakabanaturik zeuden eta zenbaitetan osatugabeak ziren arauen fasea gainditu zuen, eta erraztu egin zuen foru kargu publikoei aplikagarri zaien erregimena ulertzea. Horrez gain, tresna bakarrean integratu zituen honako hauei buruzko xedapenak: estatutu pertsonala, jokabide kodea, foru kargu publikoen bateraezintasun erregimena eta interes gatazkak.

Bateraezintasunari dagokionez, arau orokorra ezarri zuen: kargudunek arduraldi eskusiboa edukitzea, arauan bertan bateragarritzat jotzen

Declaración de compatibilidad de las diputadas y diputados de la Diputación Foral de Álava.

El ordenamiento jurídico foral exige a los gestores públicos una actuación imparcial y objetiva en el ejercicio de sus funciones de gobierno y de dirección de la administración en la que desempeñan su cargo para garantizar que otros intereses no interfieran ni mediaten el ejercicio de tales funciones comprometiendo su objetividad, independencia e imparcialidad, y que su ejercicio se realice con las máximas condiciones de transparencia, legalidad y ausencia de conflictos entre los intereses públicos y privados. La salvaguarda de la imparcialidad, independencia y cumplimiento estricto de los deberes del cargo público son motivos suficientes para la denegación de la compatibilidad si existe un mínimo peligro de menoscabo.

La actual Norma Foral 10/2018, de 11 de julio, reguladora del ejercicio del cargo público foral, superó una fase normativa dispersa y, en ocasiones, incompleta, simplificando la comprensión del régimen aplicable a los cargos públicos forales e integrando en un único instrumento las disposiciones relativas al estatuto personal, al código de conducta, al régimen de incompatibilidades de los cargos públicos forales, y a las situaciones de conflicto de interés

En materia de incompatibilidades se establece la dedicación exclusiva como regla general que sólo cederá ante determinadas actividades públicas y





diren jarduera publiko eta pribatu batzuk bakarrik salbuetsita. Horrez gain, ezarri zuen foru kargu publikodunek ezingo dutela jaso ordainsari bat baino gehiago administrazio publikoen edo haiei lotutako erakundeen aurrekontuen kontura. Halaber, ezin dute jaso jarduera pribatuen ondoriozko ordainsaririk ere, berariaz ezartzen diren salbuespenetan izan ezik. Sozietate partaidetzei eta kargua utzi ondoren jarduera ekonomiko pribatuetan jarduteari mugak ezartzen zaizkie, eta jardueren eta ondare ondasun eta eskubideen aitortpena aurkeztu beharra ezartzen da hura erregistratu dadin, hori guztia foru kargu publikoen funtzio publikoen garapenean objektibotasuna eta inpartzialtasuna bermatzeko.

Baldin eta kargu publikoen betebeharrak eta eginkizunak zorrozki betetzea eragozten ez badute edo haiei kalterik egiten ez badiete, eta interes publikoa kaltetzen ez badute, honako hauek bateragarritzat jotzen ditu aipatutako arauak: norberaren edo familiaren ondarea kudeatzea –sozietateetako partaidetzei ezarrirako mugak kontuan hartuta–; alderdi politikoetan jardutea edo karguak izatea; ekoizpen eta sorkuntza literario, artistiko, zientifiko edo teknikoak merkaturatu eta argitaratzea –baldin eta lan harremanen edo zerbitzuak egiteko kontratu baten ondoriozkoak ez badira–, eta ordainsaririk jaso gabe parte hartzea irabazteko asmorik gabeko fundazioetan, elkarteetan edo erakundeetan.

Jarduera publikoak gauzatzeari dagokionez, baldin eta trukean inolako ordainsaririk jasotzen ez bada –agindutako ordezkariak lanak eragiten dituen gastuen kalteordainak izan ezik–, bateragarritzat jotzen dira dagozkion beste erakunde kargu batzuetan aritzea –edota diputatu nagusiak edo gobernu kontseiluak berariaz eskuduntza ematen duenetan–, erakunde publikoetan aldi baterako misioak edo ordezkariak lanak egitea, eta Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoaren ordezkariak aritzea edo parte hartzea kide anitzeko organoetan, zuzendaritza organoetan edo gobernu organoetan.

Bestalde, herri ordezkarietako kargu publikoak betetzeko bateragarritasuna kasuan kasuko

privadas que son declaradas por la propia norma como compatibles. Se establece que el cargo público foral no podrá recibir más de una retribución con cargo a los presupuestos de las administraciones públicas o entidades vinculadas a ellas, ni ninguna otra que provenga de la actividad privada salvo las excepciones previstas expresamente. Se fijan limitaciones a las participaciones societarias y al ejercicio de actividades económicas privadas tras el cese, y se establece la obligación de presentar declaración de actividades y de bienes y derechos patrimoniales para su registro, todo ello para garantizar la objetividad e imparcialidad en el desarrollo de las funciones públicas de los cargos públicos forales.

Ahora bien, siempre que no impida ni menoscabe el estricto cumplimiento de los deberes y obligaciones del cargo público, ni perjudique el interés público, se declaran como compatibles la administración del patrimonio personal o familiar -con las limitaciones previstas para las participaciones en sociedades-; el ejercicio de actividades y cargos en partidos políticos; la comercialización y publicación de producciones y creaciones literarias, artísticas, científicas o técnicas, siempre que no traigan causa en una relación de trabajo o de prestación de servicios; y también la participación en fundaciones, asociaciones o entidades sin ánimo de lucro siempre que no se reciba retribución alguna.

En cuanto al desarrollo de actividades públicas y siempre que no implique la percepción de retribución alguna, salvo la indemnización por los gastos en que se hubiera incurrido, se declaran como compatibles el desempeño de otros cargos que institucionalmente le correspondan, o, el de aquéllos para los que resulte expresamente comisionado por el diputado o diputada general o por el consejo de gobierno; el cumplimiento de misiones temporales o de funciones de representación en organizaciones de naturaleza pública; y, también la representación y participación del sector público del Territorio Histórico de Álava en órganos colegiados, de dirección o de gobierno

Por otro lado, la compatibilidad con el desempeño de cargos públicos de representación



hauteskunde legeek zehazten dute, eta foru karguak ezin izango du inolaz ere jarduera bati dagokion ordainsaria baino gehiago jaso, eta berariaz bateragarritzat jotzen da, diputatu nagusiarentzat izan ezik, toki erakundeetako kide hautetsia eta alkatea izatea, salbu eta legeriaren arabera arduraldi eskusiboa edo lanaldi partzial finkoa eskatzen bada.

Horrez gainera, araudiak ezartzen du foru kargu publikoetan jardutea irakaskuntzarekin bateragarria dela, baldin eta ez badira urtean 60 ordu baino gehiago ematen. Bestalde, ezartzen du foru kargu publikoek ezin dutela parte hartu enpresa, sozietate eta erakundeen interesak ukitzen dituzten gaitetan, ez gai horien inguruko erabakietan ere, baldin eta zerbitzu harremanak hasi aurreko bi urteetan karguduna edo bere ezkontidea –edo izatezko bikotea edo bigarren gradura arteko odol edo ezkontza ahaideren bat edo kargudunarekin interes partekatutak dauzkan hirugarren pertsonaren bat– enpresa, sozietate edo erakunde horren zuzendaritzako gobernu organoetan aritu bada. Halaber, arauak ondare mugak ezartzen ditu sozietateen partaidetzetan, baldin eta edozein motatako itun edo kontraturen bat badute, azpikontratatistak badira, edo foru sektore publikoko erakunderen baten diru laguntza jasotzen badute. Amaitzeko, kargu publikoa utzi ondoko bi urteetan jarduera jakin batzuetan aritzeko debekua ere ezartzen du arauak, eta beste hainbat bateraezintasun eta debeku ere.

Horrenbestez, foru diputatuen bateragarritasunari buruzko ebazpena emateko, 10/2018 Foru Arauaren 28.2 artikulua babesean, jardueren aitorpena ez ezik ondasunena eta interesena ere kontuan hartu behar dira, aitorpen horretatik erator baitatitezke balizko eta kautelazko bateraezintasun kasuei buruzko edo abstentzio eta eskumena baliatzeari uztearen kausei buruzko kasuak eta alderdiak.

Foru Gobernu Kontseiluko kideek aurkeztutako aitorpenetan jasotako datuak honako hauek dira:

popular viene determinada por las respectivas leyes electorales, sin que en ningún caso el cargo foral pueda recibir más de la retribución correspondiente a una de las actividades, declarándose expresamente compatible, a excepción del diputado o diputada general, la condición de miembro electo de las entidades locales y de alcalde o alcaldesa salvo que se exija una dedicación exclusiva o fija a tiempo parcial según la legislación.

Además, se contempla la compatibilidad del cargo público foral con la docencia cuando no sea superior a 60 horas anuales; y dispone, entre otros, el deber de inhibición y abstención en asuntos en cuyo despacho hubieran intervenido o que interesen a empresas, sociedades o entidades en cuyos órganos de dirección o de gobierno hayan intervenido en los dos años anteriores al inicio de su relación, tanto ellos como su cónyuge o pareja de hecho o sus familiares dentro del segundo grado de consanguinidad o afinidad o terceras personas con las que tengan intereses compartidos; establece también limitaciones patrimoniales en participaciones societarias en cuanto tengan contratos y conciertos, sean subcontratistas, reciban subvenciones provenientes del sector público respectivo; y prohibiciones para el desarrollo de determinadas actividades durante el plazo de dos años posteriores al cese, etc.

Por lo tanto, para el dictado de la correspondiente resolución sobre la compatibilidad de las diputadas y diputados forales, al amparo del artículo 28.2 de la Norma Foral 10/2018, ha de tenerse en cuenta no solo la declaración de actividades sino también la de bienes e intereses, pues de ésta se pueden derivar supuestos y aspectos sobre eventuales y cautelares supuestos de incompatibilidad o causas de abstención e inhibición.

Los datos recogidos en las declaraciones presentadas por los miembros del Consejo de Gobierno Foral son las siguientes:



Diputatu nagusia Diputado General	Ramiro González Vicente 2023ko ekaina: <ul style="list-style-type: none">• Arabako diputatu nagusi izateari utzi• Arabako Batzar Nagusien batzarkidea junio 2023: <ul style="list-style-type: none">• cese como Diputado General de Álava• procurador de JJGG Álava
Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua Primera Teniente de Diputado General y Diputada Foral de Empleo, Comercio, Turismo y Administración Foral	Cristina González Calvar 2023ko uztaila: <ul style="list-style-type: none">• Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatu izateari utzi• Arabako Batzar Nagusietako batzarkidea• UHUNeko irakaslea-tutorea: 60 ordu urtean• Lezako Udaleko zinegotzia, dedikaziorik eta ordainsaririk gabe julio 2023: <ul style="list-style-type: none">• cese como Diputada Foral de Fomento del Empleo, Comercio y Turismo y de Administración Foral.• procuradora de JJGG Álava• profesora-tutora UNED: 60 horas anuales• Concejala Ayuntamiento de Leza sin dedicación ni retribución
Bigarren diputatu nagusiordea eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua Segunda Teniente de Diputado General y Diputada Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos	Maria Itziar Gonzalo de Zuazo 2023ko uztaila: Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Saileko foru diputatu izateari utzi julio 2023: cese como Diputada Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos
Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua Diputada Foral de Igualdad, Euskera y Gobernanza	Jone Berriozabal Bóveda 2023ko uztaila: Erakunde Harremanetarako sailburuorde karguari utzi julio 2023: cese como Viceconsejera de Relaciones Institucionales
Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatua Diputada Foral de Desarrollo Económico e Innovación	Saray Zárte Fernández de Landa 2023ko uztaila: Gasteizko Udaleko Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi karguari uztea julio 2023: cese como Concejala de Cultura y Educación del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz



Gizarte Politiken Saileko foru diputatua Diputado Foral de Políticas Sociales	Gorka Urtaran Aguirre 2012ko ekaina: Gasteizko alkate karguari utzi junio 2023: cese como Alcalde de Vitoria-Gasteiz
Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatua Diputado Foral de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias	Jon Nogales Prieto 2023ko uztaila: <ul style="list-style-type: none">• Arabako Batzar Nagusietako PSE-EE batzarkide taldeko bozeramailea• Arabako Batzar Nagusietako batzarkidea julio 2023: <ul style="list-style-type: none">• cese como portavoz del Grupo Juntero PSE-EE en las Juntas Generales de Álava• procurador de JJGG Álava
Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua Diputado Foral de Equilibrio Territorial y Ordenación del Territorio	Anartz Gorrotxategi Elorriaga 2023ko uztaila: <ul style="list-style-type: none">• Arraia-Maeztuko alkate izateari utzi• Arabako Mendialdeko Kuadrillako lehendakari izateari utzi• Arraia-Maeztuko Udaleko zinegotzia julio 2023: <ul style="list-style-type: none">• cese como Alcalde de Arraia-Maeztu• cese como presidente de la Cuadrilla Montaña Alavesa• Concejal del Ayuntamiento de Arraia-Maeztu
Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua Diputada Foral de Sostenibilidad, Agricultura y Medio Natural	Amaia Barredo Martín 2023ko uztaila: Ingurumen Jasangarritasuneko sailburuorde izteari utzi julio 2023: cese como Viceconsejera de Sostenibilidad Ambiental
Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua Diputada Foral de Cultura y Deporte	Ana María del Val Sancho 2023ko uztaila: Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu izateari utzi julio 2023: cese como Diputada Foral de Cultura y Deporte

Horiek horrela, aurkeztutako aitorenak ikusita, Foru Gobernu Kontseiluko agintari batek ere ez du adierazi ordainsari edo pertzepziorik jasotzen duenik ez administrazio publikoen edo haien menpeko erakundeen aurrekontuen kontura, ez zuzenean edo zeharka jarduera pribatu batetik. Kasu honetan ez da sartzen unibertsitateko irakaskuntzan eskolak ematea ordainsariaren truke.

Así las cosas, a la vista de las declaraciones presentadas ninguno de los miembros del Consejo de Gobierno Foral percibe retribuciones, con cargo a los presupuestos de las administraciones públicas o entes dependientes de ellas, ni cualquier otra remuneración o percepción que directa o indirectamente provenga de una actividad privada. No se incluye en este supuesto el ejercicio retribuido de la docencia en la enseñanza universitaria.



Aitorpena egin duen agintari eta goi-karguetako batek ere ez ditu gainditzen sozietateetan izan daitezkeen partaidetzearako ezarritako mugak, hain zuzen ere, edozein motatako itun edo kontraturen bat duten, azpikontratistak diren edo foru sektore publikoko erakunderen baten diru laguntza jasotzen duten enpresenak.

10/2018 Foru Arauaren 24. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, foru diputatuaren karguan jardutea bateragarria da alderdi politikoetan karguetan jardutearekin eta, 26. artikulua arabera, Arabako Batzar Nagusietako batzarkide karguarekin. Gauza bera gertatzen da, diputatu nagusiarentzat izan ezik, alkatearen edo zinegotziaren karguetan, arduraldi eskusiborik eta lanaldi partzial finkorik ez dutenean.

Horregatik guztiagatik, egindako aitorpenak aztertu dira, bai eta Arabako Batzar Nagusiek, Lezako Udalak, UHUNek eta Arraia-Maeztuko Udalak aurkeztutako ziurtagiriak eta Idazkaritza Orokorreko Zerbitzuaren buruak egindako aldeko txosten proposamena ere. Horrela, bada, diputatu nagusiak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran gaia eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa.- Adieraztea honako honek kargu honetan jarduteko bateragarritasuna duela:

- Ramiro González Vicente, Arabako diputatu nagusia.
- Cristina González Calvar, lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.
- María Itziar Gonzalo de Zuazo, bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua
- Jone Berriozabal Bóveda, Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko foru diputatua.
- Saray Zárte Fernández de Landa, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Saileko foru diputatua

Ninguna de las autoridades y altos cargos declarantes está afecta a las limitaciones patrimoniales en participaciones societarias que tengan conciertos o contratos de cualquier naturaleza con el sector público foral, o sean subcontratistas de dichas empresas, o reciban subvenciones provenientes del sector público foral.

Según lo previsto en el artículo 24 de la Norma Foral 10/2018, el ejercicio del cargo de diputada o diputado foral es compatible con el ejercicio de cargos en partidos políticos y, según el artículo 26, con el cargo de procurador o procuradora de las Juntas Generales de Álava. Lo mismo ocurre, salvo en el caso del Diputado General, para los cargos de alcalde, alcaldesa, concejal o concejala sin dedicación exclusiva ni fija a tiempo parcial.

En su virtud, vista las declaraciones efectuadas, de las certificaciones emitidas por las Juntas Generales de Álava, Ayuntamiento de Leza, UNED y Ayuntamiento de Arraia-Maeztu, así como la propuesta de informe favorable efectuada por la Jefa del Servicio de Secretaría General, a propuesta del Diputado General, y previa deliberación del Consejo de Gobierno Foral en Sesión celebrada en el día de hoy.

ACUERDO

Primero.- Declarar la compatibilidad para desempeñar el cargo de:

- Ramiro González Vicente, Diputado General.
- Cristina González Calvar, Primera Teniente de Diputado General y Diputada Foral de Empleo, Comercio y Turismo y Administración Foral.
- María Itziar Gonzalo de Zuazo, Segunda Teniente de Diputado General y Diputada Foral de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.
- Jone Berriozabal Bóveda, Diputada Foral de Igualdad, Euskera y Gobernanza.



- Gorka Urtaran Aguirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua
- Jon Nogales Prieto, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatua
- Anartz Gorrotxategi Elorriaga, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
- Amaia Barredo Martín, Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saileko foru diputatua
- Ana María del Val Sancho, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
- Saray Zárate Fernández de Landa, Diputada Foral de Desarrollo Económico e Innovación.
- Gorka Urtaran Aguirre, Diputado Foral de Políticas Sociales.
- Jon Nogales Prieto, Diputado Foral de Movilidad Sostenible e Infraestructuras Viarias.
- Anartz Gorrotxategi Elorriaga, Diputado Foral de Equilibrio Territorial y Ordenación del Territorio.
- Amaia Barredo Martín, Diputada Foral de Sostenibilidad, Agricultura y Medio Natural.
- Ana María del Val Sancho, Diputada Foral de Cultura y Deporte.

Bigarrena.- Erabaki hau Gardentasunaren Atarian argitaratzea.

Segundo.- Publicar el presente Acuerdo en el Portal de Transparencia.

Vitoria-Gasteiz.

Ramiro González Vicente
Diputatu nagusia
Diputado General